

Lekeitio



# EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO LEKEITIOKO UDALEKO I. PLANA

2006 – 2009

2006ko ekaina





## 0.

---

### Aurkibidea

<b>1.- Aurkezpena..</b>	..	..	..	..	..	..	<b>3</b>
<b>2.- Erakunde- eta lege-esparrua...</b>	..	..	..				<b>4</b>
<b>3.- Kontzeptua..</b>	..	..	..	..	..		<b>9</b>
<b>4.- Berdintasun Planaren ezaugarriak..</b>	..	..	..				<b>11</b>
<b>5.- Eremuak, Helburuak, Ekintzak eta lehen ebaluazio-adierazleak..</b>	..	..	..	..	..		<b>12</b>
<b>6.- Kronograma ..</b>	..	..	..	..	..	..	<b>57</b>



## 1.

### Aurkezpena

---

Emakumeek eta gizonen gizarteari egiten dioten eta egin diezaioketen ekarpena aintzat hartzea eskatzen du aukera-berdintasunak. Sexu biek egiaz aukera berak izan ditzaten, ondasunak eta baliabideak banatu behar dira eta bizitzako arlo guztiak konpartitu; alabaina, horrekin batera, beharrezkoa da emakumeek erabaki politikoak, finantzarioak, kulturalak eta sozialak hartzen parte har dezaten eta gizonezkoek gauza bera egin dezaten familia-bizitzan eta bizitza afektiboan.

Egiteko garrantzitsu hori aurrera eramateko, botere politikoak helburutzat hartu behar du emaitzen berdintasuna lortzea, eta, helburu hori betetzeko, neurriak hartu behar ditu aurre egiteko bai diskriminazio zuzenei —sexuari erreparatuta, tratu berezituak eta emakumeentzat kaltegarriak erabakitzen dituzten ekintzei—, bai zeharkako diskriminazioei —hain agerikoak ez badira ere, emakumei eta gizoni berdintasuna lortzea eragozten dieten ekintzei—.

Administrazioak horren jakitun dira, eta azken bi hamarkadetan, hainbat politika abiatu dituzte, legeetan eta araudietan jasotako berdintasuna egiazko aukera- eta emaitza-berdintasun eraginkorra izan dadin.

Berdintasunari dagokionez, udalek zeregin eta zilegitasun handia dute. Horren erakusgarri dira Toki Araubidearen Oinarria arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeak berdintasunaren arloan udalei ematen dizkien eskuduntzak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an onartutakoak, arautzen dituen alderdiak. Horrenbestez, udalen konpromisoak eta jarduera- eta interbentzio-aukerak garrantzi handikoak dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako politika publikoak aurrera eramateko.

Ildo horretatik, Lekeitioko gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunari buruzko diagnostiko bat egin du Lekeitioko Udalak, eta diagnostiko hori da, hain justu, Plan hau egiteko erabili den erreferentzia.



## 2.

### Erakunde- eta lege-esparrua

**Europar Batasuna** izan da lehen erakunde-esparrua aukera-berdintasunari buruzko araudiak, ekimenak eta programak sortu dituen, Europar Batasuneko estatuetako politiketan zenbait irizpide barneratzeko.

Berdintasunaren aldeko ibilbidea, legegintzari dagokionez, hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi zen, hamarkada horretan hartu baitziren lan-arloko lehen neurriak eta indarreko arauen alderdi diskriminatzaileak ezabatzeko lege-jarduerei ekin.

Gerora, laurogeiko hamarkadaren hasieran, Europako Parlamentuak emakumeak Europan bizi duen egoerari buruzko hiru eztabaida egin zituen, eta eztabaida horien bidez ezarri ziren Europako lehen Ekintza Planaren oinarriak. Geroztik bost Programa egin dira, eta programa horien bidez hainbat interbentzio-neurri antolatu dira, emakumeek enpleguan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, kulturean, eta, oro har, bizitza publikoan izan behar duten lekua eskura dezaten. Egun, Europako emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Ekintza Programa (2001 – 2005) dago indarrean.

**Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)**, 1988an EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea sortu zenetik, Ekintza Baikorreko hiru Plan egin dira, eta, egun, III. Plana dago indarrean, Eusko Jaurlaritzak 1999ko abenduaren 21ean onartua. Azken plan horrek honako hauek jasotzen ditu: batetik, Pekinen 1995eko irailaren 15ean egindako *Emakumei buruzko IV. Mundu Konferentziako* Ekintza Plataformak ezarritako helburuak, eta, bestetik, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako *Europako IV Ekintza Programak* egindako proposamenak. Egun, jendaurreko erakusketa-fasean dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren zirriborria.

Berriki, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legeak, Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an onartutakoak, herri-administrazioek berdintasunaren alorrean egin beharreko jarduerak arautzeaz gain, mugarri bat ezarri du generoari buruzko politika publikoen alorrean.

Lege horrek argi eta garbi zehazten ditu administrazio-maila bakoitzari dagozkion funtzioak, gizonen eta emakumeen berdintasunari dagokionez. Horretarako, aintzat hartu dira Autonomia Ituneko 10.39 artikuluan eta Lurralde Historikoen Legeko 6 eta 7 c) 2 artikuluetan egindako eskuduntza-banaketa, eta estatutuko 9.2. artikuluan eta Europar Batasuneko



Ituneko 3.02 artikuluan araututako lege-aginduak. Arau horiek ezarritakoaren arabera, botere publiko guztien betebeharra da gizonen eta emakumeen arteko berdintasun efektiboa eta erreala lortzeko baldintzak sustatzea eta oztopoak ezabatzea. Halaber, botere publiko guztiek sustatu behar dute berdintasun hori haien politika eta ekintza guztietan.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeak honako funtzio hauek esleitzen dizkio Tokiko Administrazioari:

- a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- b) Ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- e) Emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- f) Emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.
- k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- l) Sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak hautematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.



Toki-administrazioek aurreko paragrafoan aipatzen diren eginkizunak benetan bete ditzaten laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetzan tekniko eskainiko die toki-administrazioei, eta foru-administrazioek ere sustapen-neurriak hartuko dituzte.

Era berean, 2000. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiak egitura tekniko bat sortu zuen Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako Foru Plana inplementatzeko — Plan hori 2000n onartu zen hiru urterako, eta 2007ra arte luzatu zen—. Genero Politiketako Idazkaritza da egitura hori, eta hauxe da haren helburuetako bat:

*“Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeek gizon eta emakumeen arteko aukera- eta tratu-berdintasuna garatzeko duten konpromisoa bultzatzea”*

Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak argi eta garbi adierazten du udalei dagokiela herritar-komunitateen premiak eta helburuak betetzeko behar diren jarduerak egitea eta zerbitzuak ematea; eta, lege horren arabera, emakumeen sustapena da herritarren jarduera-eremuetako bat.

Garrantzitsua da toki-erakundeek arlo horretan egingo dituzten esku-hartzeak asistentziarako planteamenduetatik eta emakume jakin batzuei baino eragiten ez dieten jardueretatik harago joatea, eta tokiko edo eskualdeko eremuan politika integralen aldeko apustu serioak egitea. Politika integral horiek herritar guztiei begira egin behar dira, eta udal-kudeaketako sail guztiak inplikatzear gain, diskriminazioaren prebentzioa eta emakumeen gizarte-sustapena jaso behar dituzte, oinarrizko jarduera-irizpide gisa.

Politika horiek egiteko, honako hauek behar dira: berariazko kudeaketa- eta koordinazio-tresnak, baliabide material egokiak eta prestatutako pertsonak. Horien bidez, udaleko sail bakoitzak eta sail guztiek batera berdintasunerako ekintzak egiteko gai izan behar dute. Horrez gain, herri barruko koordinazioak eta udal-, lurralde- eta erkidego-politiken arteko koordinazioak eraginkorrak izan behar dute.

Alabaina, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako udal-politika eraginkorra izan dadin, lehenik eta behin, udal-kudeaketak atal bat gorde behar du arazoak diagnostikatzeko, eskaerak hautemateko, programak diseinatu eta bultzatzeko, sailen jarduera koordinatzeko eta politiken eragina ebaluatzeko. Bigarrenik, Aukera Berdintasunerako Udala Planak egin behar dira, toki-administrazioaren esku-hartzerako berezko esparru diren aldetik.



Toki-erakundeak bere egindako Esparruko/zeharkako Programa bat edo Gizonen eta Emakumeen Aukera Berdintasuneko Plan bat izatea funtsezkoa da toki-eremuan aukera berdintasuneko politiko orokor bat eratzeko.

Sektore arteko politika egokia egiteko, beharrezkoa da berariazko borondate instituzionala izatea, eta borondate horrek udal-kudeatzaileen konpromisoa lortzea, kudeatzaileek berdintasunaren alde lan egin dezaten eta berdintasunaren arloaz arduratuko den organoa diseinatzeko, bultzatzeko eta koordinatzeko lana berma dezaten.

Tokiko korporazioaren jarduera-gaitasuna eta erantzun beharreko premiak aintzat hartuta, plana tresna metodologiko paregabea izango da, ekintza integralak eta koordinatuak aurrera eramateko.

Aukera Berdintasuneko Udal Planak diseinatzeko, aintzat hartu behar dira herriak eskura dituen eskumenak eta materialak, agiri horrek tresna eragilea izan behar baitu toki-eremuan, eta, berez, hura baita eraginkortasun handiko ekintzak aurrera eramateko esparrua.

Helburuak lortuko badira, udalaren baliabideen eta premien arabera diseinatu eta garatu behar da Plana, baina, batez ere, ezinbestekoa izango da programa arrakastatsua izateko parte hartu behar duten pertsona guztien inplikazioa (herriko arduradun politikoena, teknikariena, erakundeena, elkarteena eta gizarte-eragileena, eta, oro har, herritar guztiena).

Aukera Berdintasuneko Udal Planaren xede dira bai Udalaren barne-antolamendua, bai herriko erakundeak, gizarte-eragileak, emakumeak eta gizonak. Horrenbestez, Planaren helburuen eta ekintzen xedeak ez du mugatu behar emakumeen eta gizonen berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzera; izan ere, horrez gain, Udalari berari begiratu behar dio, toki-administrazioa eredugarria izan dadin, sexuen arteko aukera- eta tratu-berdintasunari dagokionez.

Ondorioz, Berdintasuneko Plan edo Estrategia bat prestatzen hasi aurretik, beharrezkoa da **HERRIA EZAGUTZEA ETA UDALAK GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNAREN ARLOAN EGITEN DUEN LANA NOLAKOA DEN JAKITEA.**

Lekeitioko emakumeak eta gizonak nola bizi diren jakin behar da; hau da, kolektibo bakoitzak izan ditzakeen premiak beteta dituztela sentitzen ote duten, aukera berak ote dituzten enplegu bat eskuratzeko, udal-zerbitzuak jasotzeko, herriko gunez gozatzeko, kultura- eta kirol-elkarteetan sartzeko, eta abarrerako. Horiek dira, beraz, udalak berak egin beharreko ekintza zehatzak diseinatzeko ezagutu behar diren zenbait gai.



Bestalde, komeni da jakitea udalak, antolamendu-ikuspegitik, zer-nolako lana egiten ari den, egunero, gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko. Ildo horretatik, azterlan hau egitea baliagarria izango da udalaren antolamenduaren nondik norakoak ezagutzeko eta aztertzeko; hau da, zer-nolako sustapen-sistema duen, gizezko eta emakumezko langileak zer sailetan banatuta dauden, zer-nolako ardurak dituzten, etab. Halaber, ordezkari politikoaren genero-banaketa aztertuko da, udal-aurrekontua nola banatzen den, etab.





### 3.

---

## Kontzeptua

**Aukera Berdintasuneko Plan** hau egiteko, honako hauek aintzat hartu dira: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (4/2005) Legea, Europako V Ekintza Programako gomendioak, eta "Europako Kontseiluko *Mainstreaming*-ari buruzko Aditu Taldeak" aukera-berdintasuneko politikak inplementatzeari eta martxan jartzeari buruz emandako gomendioak.

Esparru hori erreferentziatzen hartuta, bi estrategia hauek planteatzen dira Aukera Berdintasuneko Planak inplementatzeko: *Mainstreaming* joera eta ekintza positiboa. Politika horiek aurrera eramateko ezinbesteko estrategiatzat jotzen da genero ikuspegiaren **zeharkakotasuna** edo "*Mainstreaming*-a", eta horixe bera adierazten du aipatutako adituek kontzeptu horren definizioan:

*"prozesu politikoaren antolaketa (berrantolaketa), hobekuntza, garapena eta ebaluazioa, genero-berdintasuneko ikuspegia politikaren guztietan jaso dadin, maila eta etapa guztietan, eta neurri politikoak hartu ohi dituzten eragileak izatea hori egingo dutenak".*

Horrenbestez, estrategia hori da berdintasunaren arloan egin daitekeen ekintza oro zuzentzeko ardatza, eta, ondorioz, Planaren diseinuak bereak jasotzen du estrategia hori martxan jartzeko mekanismoak.

Europar Batasuneko Ekintza Programek jasotakoari jarraituz, Ekintza Positiboa da Planak jasotako bigarren estrategia, tresna eraginkorra den aldetik. Horiek horrela, aukera berdintasuneko politika "tradizionalen" baitan koka dezakegu ekintza positiboa; izan ere, ekintza horien bidez, genero-desberdintasunak eragindako arazoak konpondu nahi izaten da. Ildo horretatik, hauexek dira, Aukera Berdintasunerako Europar Batasuneko Aholku Batzordearen arabera, ekintza positiboaren definizioa:

*"ekintza-planetako estrategia, ekintzen bidez aukera-berdintasuna ezartzeko xedea duena, eta, xede hori lortzeko, aldi baterako neurriak hartzen dituen, gizarte-jarduerek edo gizarte-sistemak eragindako diskriminazioak baliogabetze edo zuzentze aldera".*



Bi estrategia horiek osagarriak dira, berdintasun-politikak aurrera eramateko. Alde batetik, zeharkakotasunak aldaketarako indar handia du, egiturazko alderdietan eragiten baitu; bestetik, ekintza positiboak azkar eragiten du berriazko desberdintasun-egoeretan.



## 4.

---

### Planaren ezaugarriak

- ⇒ Planak 4 urteko indarraldia du; 2006-2009 eperako, hain zuzen.
- ⇒ Plana modu parte-hartzailean egin da, aurretiazko egoera-diagnostiko bat eginez eta Lekeitio Udal osoaren eta herriko eragile guztien partaidetzaz.
- ⇒ Lehen fase honetan, **Gizarte Zerbitzuetako Sailak** koordinatzen eta bultzatzen du plana.
- ⇒ **Plan irekia eta malgua** da, aldaketak egin baitaitezke haren ezarpen-prozesuan eta planak beste udal-plan batzuk jaso baititzake; esaterako, Gazte Plana.
- ⇒ **Plan ebaluagarria** da. Planak ebaluazio-sistema bat proposatzen du, ezarritako helburu bakoitzari buruzko adierazleen bidez gauzatzen dena.
- ⇒ Planak **eremuak, helburuak eta ekintza bideragarriak** jasotzen ditu, guztiak ere udal-sailek eta herriko eragileek bete ditzaketenak, finkatutako denboran eta eskuragarri dituzten baliabideak erabilia.
- ⇒ Tresna honek **herriari eragiten dio**, eta, ondorioz, **eragile politikoaren, eragile teknikoaren eta herritarren konpromisoa eskatzen du**.
- ⇒ Planak **10 eremu, 37 helburu eta 88 ekintza** ditu.

## 5.

### Eremuak, helburuak eta ekintzak

#### UDALEAN



1. EREMUA: BERDINTASUNERAKO EGITURAK ETA BALIABIDEAK FINKATZEA
2. EREMUA: BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA ETA MOTIBAZIOA
3. EREMUA: GENERO-IKUSPEGIA HARTZEA
4. EREMUA: EMAKUMEEK ETA GIZONEK OREKAZ PARTE HARTZEA UDALEAN

#### HERRIAN



5. EREMUA: HEZKIDETZA
6. EREMUA: ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA
7. EREMUA: KULTURA ETA GIZARTE-PARTAIDETZA
8. EREMUA: GIZARTE INKLUSIOA
9. EREMUA: OSASUNA ETA BIZI-KALITATEA
10. EREMUA: HIRIGINTZA ETA GENEROA



## 1. eremua: BERDINTASUNERAKO EGITURAK ETA BALIABIDEAK FINKATZEA

Udal batean berdintasun-politikak abian jartzeko, lehenik eta behin, egiturak sortu eta baliabide ekonomikoak eta pertsonalak eskuratu behar dira, haiek inplementatzeko. Horren alde lan egiteko konpromiso politiko argia du Lekeitioko Udalak. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna kudeatuko duen egitura egonkor eta zeharkakorik jarri ez badu ere, Udalak badu hura sortzeko asmoa. Hori dela-eta, planeko 1. eremu honek egitura hori sortzeari eta martxan jartzeko behar diren baliabideei buruz dihardu.

Plan honek egiturari buruz diharduenean, zuzenean Alkatetzaren mende legokeen lantalde bati buruz ari da, bere jarduna gainerako udal-sailen jarduerekin koordinatuko duena. Sail horren izena Berdintasuneko Saila izan daiteke, eta ez legoke Gizarte Zerbitzuetako Sailaren mende egongo, haren helburuak azken sail horren jarduera-eremutik haragokoak baitira. Horrenbestez, Berdintasun Sailaren helburuek, barne-ikuspegitik, Lekeitioko Udal osoari eragiten diote (araudiei, prozedurei, lan-harremanei, kontratazioei eta abarrei), eta, kanpo-ikuspegitik, herritar guztiei eta udal-sail guztiei (Enplegua, Osasuna, Gazteria, Kultura, Kirola...).

Bestalde, egitura horrek baliabide ekonomikoak izan behar ditu, helburuak betetzeko eta ekintzak bultzatzeko. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren arloan adituak diren langileen gastuak estaliko lituzkete baliabide horiek, baita ekitaldi bakoitzean egindako ekintzen gastuak ere. Komeni da baliabide ekonomiko horiek Alkatetzak eta gainerako udal-sailek —zeharka planaren eragina jasotzen baitute— sortzea. Ildo horretatik, udal-sail guztiek gai izan beharko lukete Berdintasunerako Plan honetatik sortutako ekintza-planetan parte-hartzeko eta haiek kudeatzeko. Horretarako, Sailarteko Batzordea izeneko batzorde bat sor daiteke, udaleko arduradun teknikoek osatua. Aukera-berdintasunaren arloko prestakuntza eman beharko litzaieke pertsona horiei, eta, hortik abiatuta, genero-ikuspegia udalaren funtzionamendu osora zabaldu.

Halaber, funtsezkoa da Berdintasunerako Planaren eta plan horretatik eratorritako zerbitzuak zabaltzea, jartzen diren baliabideak herritar gehienei iris daitezzen, bai emakumeei, bai gizonei.

Planaren lehen eremu honetarako ezartzen diren berriazko helburuak honako hauek dira:



- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna kudeatuko duen egitura egonkor bat izatea, bai udalean bertan, bai herrian.
- Urtero aurrekontu bat izatea Berdintasunerako Planeko ekintzak egiteko, bai Berdintasunerako Egiturarentzat, bai Plan horretan parte hartzen duten udal-sail guztientzat.
- Udaleko langile eta kargu politiko guztiek beren gain hartzea Berdintasunerako I. Planaren edukien (eremuak, helburuak eta ekintzak) ardura.

### **1. EREMUKO helburu orokorra:**

**Berdintasunerako I. Udal Plana abian jartzeko baldintzak finkatzea**



## **1.1. helburua. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna kudeatuko duen egitura egonkor bat izatea, bai udalean bertan, bai herrian.**

---

**1.1.1. ekintza:** Berdintasunerako Egitura bat sortzea, Alkatetzaren mendekoa eta, zeharka, udal-sail guztietan eragingo duena.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Zinegotzigoak

**Egiteko epea:** 2007

**1.1.2 ekintza:** emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan adituak diren langileak izatea, berdintasuna kudeatzeaz arduratzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta zinegotzigoak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Idazkaritza

**Egiteko epea:** 2007

**1.1.3. ekintza:** Berdintasuneko Saila sortzea, Berdintasunerako I. Planeko ekintza-planak zehazteko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Zinegotzigoak

**Egiteko epea:** 2007

**1.1.4. ekintza:** arduradun tekniko osatutako Sailarteko Batzorde bat sortzea, Berdintasunerako I. Planeko ekintza-programak koordinatzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007

**1.1.5. ekintza:** Berdintasunera Kontseilu bat sortzea, herriko emakume-taldeak eta erakunde nagusiek osatua

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Emakume-taldeak eta kultura- eta kirol-erakundeak

**Egiteko epea:** 2007



**1.1.6. ekintza:** Berdintasunerako I. Plana ebaluatzeko sistema baten plangintza egitea eta ezartzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007

**1.1.7. ekintza:** Berdinsarean (Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea) parte hartzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Alkatetza

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009.

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Berdintasunerako zehar-egitura bat izatea, Alkatzaren mendekoa.
- Langile prestatuak izatea, Berdintasunerako I Udal Plana kudeatzeko.
- Udalak Berdintasuneko batzorde informatzaile bat izatea.
- Berdintasuneko batzorde informatzailearen bilera-kopurua.
- Sailarteko batzorde bat edukitzea.
- Sailarteko batzordearen bilera-kopurua eta bertan hartutako erabaki-kopurua eta erabaki-motak.
- Berdintasunerako kontseilu bat sortzea.
- Planifikatutako eta ezarritako Berdintasunerako I Planaren ebaluazio-sistema.
- Berdinsarean (Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea) sartzea.





## **1.2 helburua. Urtero aurrekontu bat izatea berdintasunerako Planeko ekintzak egiteko, bai berdintasunerako Egiturarentzat, bai Plan horretan parte hartzen duten udal-sail guztientzat.**

---

**1.2.1. ekintza:** udal-aurrekontuak berariazko sail bat jasotzea, berdintasunerako Planeko ekintzak inplementatzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Ogasun eta Ondare Saila

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**1.2.2. ekintza:** aurrekontu-sailak jasotzea kultura sailarentzat, kirol sailarentzat eta udaleko gainerako sailentzat, Planeko ekintzat egin ditzaten

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Udal-sail guztiak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**1.2.3. ekintza:** gastu publikoa genero ikuspegitik aztertzea urtero, eta hobekuntzak planteatzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Kontu-hartzailatza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Plana 2006an, 2007an, 2008an eta 2009an inplementatzeko aurrekontuak.
- Gastu publikoa genero-ikuspegitik aztertzeko 2007an, 2008an eta 2009an egindako azterketak.



### **1.3. helburua. Udaleko langile eta kargu politiko guztiek beren gain hartzea Berdintasunerako I. Planaren edukien (eremuak, helburuak eta ekintzak) ardura.**

---

**1.3.1. ekintza:** banakako bilerak egitea kargu politikoeekin eta I. Planeko arduradun teknikoekin, plan horren baitan ezarriko diren urteko ekintza planak erabaki eta ezarri aurretik.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Alderdi politiko guztiak eta arduradun teknikoak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Planeko ekintzak bere egin eta koordinatu dituzten pertsonen kopurua (politikariak eta teknikariak).
- Urteko programak ezartzeko politikariekin eta teknikariekin egindako bilera-kopurura.
- Udal-sailetan ekintza horiek egiteko egindako lan-plan kopurua.



## 2. eremua: BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA ETA MOTIBAZIOA

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna erakunderen batean barneratzeko prozesuak halaberrez eskatzen du langile guztiek prozesu horrekiko motibazioa eta aldeko jarrera izatea, bai politikarien aldetik, bai udal-langileen aldetik, bai azpikontrataturako enpresen aldetik.

Motibazio hori lortzeko, bi bide erabil daitezke. Lehen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zertarako lortu nahi den azaltzea da, zer helburu ezarri diren eta berdintasunaren aldeko ekintzen xedea zein den argitzea eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun-egoera —ekintzak justifikatzeko egitea— esplicitzea. Bigarrena, berriz, ekintzen plangintza egiten eta horiek aurrera eramaten inplikatzeko eta parte hartzea da.

Horrenbestez, administrazio publikoek, eta, guri dagokigunez, Lekeitioko Udalak bere egin behar du aukera-berdintasunari buruzko hausnarketako eta prestakuntzako prozesu hori. Izan ere, hori da ekintzen eraginkortasuna bermatzeko bidea. Horiek horrela, Plan honek bide bat baino gehiago erabiliko ditu langile guztiek aukera-berdintasunari buruzko sentsibilizazio, motibazio eta ezagutza hori lor dezaten.

Berdintasuneko Legeak honako hau adierazten du II. tituluko III. kapituluko 17. artikuluko 1. puntuan: *"Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte beren langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarritzko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko. Izan ere, horrela, lege honetan biltzen diren xedapenak beteko dira eta, gainera, genero-ikuspegia administrazio-jardunean benetan integratzen dela bermatuko".*

### 2. EREMUKO helburu orokorra:

**Politikariak eta teknikariak etengabeko konpromiso bat bereganatu dezaten lortzea, emakumeen udal-jarduerako esparru guztietan duten egoera eta lekua hobetzeko.**



## 2.1. helburua. Berdintasunerako I Udal Plana zabaltzea

### 2.1.1. ekintza: Plana paperean eta CD formatuan argitaratzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** --

**Egiteko epea:** 2007

**2.1.2. ekintza:** berdintasunerako planaren edukiak udalean bertan eta udaleko zerbitzuen artean banatzea, eta komunikazio-bide parte-hartzaile bat jartzea (iradokizunetarako postontziak)

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail eta udal-zerbitzu guztiak

**Egiteko epea:** 2006

**2.1.3. ekintza:** Berdintasunerako Planaren edukiak jakinaraztea herritarrei eta udalaz kanpoko gizarte-eragileei, enpresei eta zerbitzuei, hainbat bide erabiliz (plana argitaratzea, esku-orriak banatzea, bilerak egitea, web orrian jartzea, aldizkaria eta buletinak argitaratzea, etab). Bide horiek erabilia, Planaren bidez zer helburu lortu nahi diren eta erakunde horiek guztiek zer-nolako jokabidea izan behar duten argitu behar da; halaber, feedbacka lortzeko bideak ezarri behar dira (iradokizunetarako postontziak)

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Herriko erakunde guztiak eta herritarrak

**Egiteko epea:** 2007

**2.1.4. ekintza:** Lekeitioko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Udal Planaren berri ematea EAEko berdintasunerako erakundeei

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** --

**Egiteko epea:** 2007

### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Berdintasunerako I. Udal Planaren zenbat ale banatu diren.
- Planaren berri izan duten herritarren eta herriko erakundeen eta instituzioen kopurua.
- Berdintasunerako I. Udal Planaren berri emateko herriko erakundeekin egin diren eta udalaren barruan egin diren bilera-kopurua.



- Berdintasunerako I. Planaren inguruan komunikazio partehartzailea izateko jarri diren postontzietan egin diren iradokizun-kopurua eta -motak.
- Herritarrek eta herriko erakundeek zer neurritan ezagutzen dituzten I. Planeko helburuak eta ekintzak.

## **2.2. helburua: udal-politikariak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunarekiko sentikor bihurtzea**

**2.2.1. ekintza:** emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna landuko duten eztabaida taldeak osatzea udalean. Talde horiek politikariz osatuko lirateke  
Gaiak: Emakumeen eta gizonen egoera EAEn; berdintasunaren alorreko oinarriko printzipioak; berdintasun-politikak; berdintasun-araudiak; beste erakunde eta herri batzuetako jardunbide egokiak...

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza, Berdintasunerako Egitura eta Idazkaritza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Zinegotzigoak

**Egiteko epea:** Urtero

**2.2.2. ekintza:** emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako herri-politikei buruzko jardunaldietara eta mintegietara joatea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta zinegotzigoak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** Etengabe

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Politikariek emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekiko duten jarrera eta hari buruzko ezagutza; oro har, 2006an eta 2009an.

## **2.3. helburua: udal-langile guztiak sentikor bihurtzea gizarte-esparru guztietan gertatzen diren genero-desberdintasunetik eta horri buruzko prestakuntza ematea.**

**2.3.1. ekintza:** gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza diseinatzea eta ematea. Prestakuntza horrek Kultura Sailaren, Kirol Sailaren eta udaleko gainerako sail, funtzio eta lanpostuen premietara egokitutako izan behar du.  
Gaiak: emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko oinarriko kontzeptuak; genero-politikak (ekintza positiboetatik genero-ikuspegiaren zeharkakotasunera); emakumeen eta gizonen egoera Lekeitioko Udalean eta herrian; aukera-berdintasunari buruzko lege-esparrua (araudiak, planak eta berdintasun-planak); proiektuen plangintza genero-ikuspegitik egitea; herritarrak berdintasunez tratatzea; udal-agirietako hizkuntza eta irudiak berdintasuna azaltzea; emakumeen aurkako indarkeria; etab.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza, Berdintasunerako Egitura eta Idazkaritza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** Urtero



**2.3.2. ekintza:** emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako herri-politikei buruzko jardunaldietara eta mintegietara joatea, sail bakoitzaren jardunarekin lotzen diren heinean

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Udal-sail guztiak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** Etengabe

**2.3.3 ekintza:** udal-sailen jardunarekin lotutako informazioak eta albisteak bidaltzea, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekin lotuta dauden neurrian.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** Etengabe

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Udal-langileek emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekiko duten jarrera eta hari buruzko ezagutza; oro har, 2006an eta 2009an.

## **2.4. helburua: Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea azpikontrataturako enpresa eta zerbitzuei**

**2.4.1. ekintza:** kontratazioetarako baldintza-orrietan jasotzea enpresek emakumeen eta gizonen kopuru orekatua izan behar dutela eta/edo barne-kudeaketako konpromiso bat izan behar, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza, Berdintasunerako Egitura eta Idazkaritza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** --

**Egiteko epea:** Etengabe

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Kontratazioetarako zenbat baldintza-orrietan baloratu den enpresek emakumeen eta gizonen kopuru orekatua izatea eta/edo barne-kudeaketako konpromiso bat izatea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan.



### 3. eremua: MASTREAMING-A EDO GENERO-BERDINTASUNAREN ZEHARKAKOTASUNA HARTZEA

Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, hauxe da Maintreaming-a edo genero-berdintasunaren zeharkakotasuna: politika eta ekintza guztiek genero-ikuspegia aintza hartzea, politika eta ekintza horiek diskriminazioak ezabatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko helburu orokorra izan dezaten. Beraz, modu sistematikoan aintzat hartu behar dira emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, nahi eta premia ezberdinak, eta berriazko jarduerak eta helburuak ezarri behar dira diskriminazioak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko planifikazio-, egite- eta ebaluazio-fase guztietan.

Ildo horretatik, 4 ildo estrategikok lagun dezakete mainstreaminga jarduera-publikoetan barneratzen. Hauek dira ardatzok:

- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alorreko sentsibilizazioa eta prestakuntza.
- Komunikazioek tratu-berdintasuna zaintzea.
- Udal-estatistikak genero-ikuspegitik biltzea, aztertzea eta erabiltzea.
- Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izatea udal-esparru guztietan.

Mainstreaminga aintzat hartzeko xedea duen lan-eremu honek, aurrez adierazitako bi ardatz estrategiko jasotzen ditu: komunikazioek tratu-berdintasuna zaintzea eta udal-estatistikak genero-ikuspegitik biltzea, aztertzea eta erabiltzea. Gainerako bi ardatzak berriazko eremutat jaso dira Plan honetan 2. eta 4. eremuetan, helburu garrantzitsuak eta hedadura handikoak baitituzte.

Mainstreaminga inplementatzeko erabili nahi den kudeaketa-sistemari dagokionez, Lekeitioko Udalaren jardueretako zenbait prozesutan genero-ikuspegia jasotzeko lana egitea erabaki da. Hauek dira prozesu horiek: agiriak egitea, azterlanak, dirulaguntzak, aurrekontuen prestakuntza, azpikontratuak, etab. Dena den, horretarako lantaldeak sortu behar dira, prozesu bakoitzarekin lotutako langileez osatuak eta Berdintasunerako Egiturak zuzenduak. Horrenbestez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Lekeitioko Udalean praktikan jartzeko lan-tresnak prestatuko dira.

#### 3. EREMUKO helburu orokorra:

**Udalaren funtzionamenduak genero-ikuspegia aintzat hartzea**



### **3.1. helburua: Udal-agirietan erabilitako hizkuntzek eta agiriek berdintasunezko tratua adieraztea.**

---

**3.1.1. ekintza:** Lekeitioko Udalean genero-berdintasuna adieraziko duten hizkuntza-moldeak eta irudiak erabiltzea gomendatuko duen alkatetza-dekretu bat onartzea, hura barne-antolamenduko erregelamenduan jasotzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

**3.1.2. ekintza:** hizkuntzaren eta irudien genero-berdintasuna zaintzeko aholku-eskuliburu bat prestatzea eta editatzea, udal-langile guztiei banatzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007

**3.1.3. ekintza:** genero-ikuspegitik berrikustea eta, hala badagokio, egokitzea Lekeitioko Udaleko administrazio-agirietako (memoriak, aktak, txostenak eta abar), argitalpenetako eta kanpainetako hizkera eta irudiak

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Hizkeran eta irudietan genero-berdintasuna agertzen duten agirien kopurua, 2006an, 2007an, 2008an eta 2009an / Genero-berdintasuna azaltzen ez duten agirien kopurua.





### 3.2. helburua: genero-ikuspegia jasotzea udal-estatistika guztietan

---

**3.2.1. ekintza:** udal-estatistiken genero-azterketak egiteko gakoei buruzko gida bat egitea, udal-langileen partaidetzarekin

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007

**3.2.2. ekintza:** udaleko eta amankomunazgoko zerbitzuen eta jardueren plangintza, erabilera eta eskuraketari buruzko datuak sexuaren arabera jasotzea, aztertzea eta interpretatzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Udal-sail guztiak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**3.2.3. ekintza:** sexu-aldagaia jasotzea udaleko aplikazio informatiko nagusietan

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007

#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Datuak sexuaren arabera bananduta jaso dituzten 2009ko txosten-kopurua.
- Datuak sexuaren arabera aztertu dituzten 2009ko txosten-kopurua.

**3.3. helburua: Genero-ikuspegia jasotzea udaleko barne-prozesuetan (dirulaguntzak, hizkuntzaren eta irudien erabilera egokitzea, azterlanak egitea, aurrekontua egitea, langile-aukeraketak, azpikontratuak, etab.).**

---

**3.3.1. ekintza:** lantaldeak sortzea, genero-berdintasunaren zeharkakotasuna lantzeko udal-barneko prozesu guztietan, prozesu horien sailtako arduradunen laguntzaz. Hona prozesu horietako batzuk:

- agiriak egitea
- dirulaguntzak
- azterlanak egitea
- udal-aurrekontua egitea



- azpikontratuak
- hautaketak eta kontratazioak

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**3.3.2. ekintza:** gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko edukiak eta gaiak jasotzea udal-lanpostuak eskuratzeko oposizioetako gaitegietan

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Idazkaritza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Lantalde-kopurua.
- Lantaldeetan parte hartzen duten sailen eta pertsonen kopurua.
- Berrikusitako udal-prozesuen kopurua.
- Prestatutako eta beste prozesu batzuetara zabaldutako tresna-kopurua eta tresna-motak.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko gaiak 2007-2009 epean deitutako oposizioetan.



#### **4. eremua: EMAKUMEEK ETA GIZONEK OREKAZ PARTE HARTZEA UDALEAN**

Emakumeek gizarte-esparru guztietan parte har dezaten sustatzea da berdintasun-plan ororen gai garrantzitsuenetako bat. Parte-hartze hori gerta dadin, beharrezkoa da emakumeen jabetasuna (ingelesezko "Empowerment" hitzak ezagun egin duen kontzeptua). Jabetasuna izan zen, hain zuzen, Beijingen 1995ean egin zen Emakumeen IV. Mundu Konferentziako kontzeptu nagusietako bat.

Emaitza-berdintasuna sustatzeko estrategia da jabetasuna, eta bi alderdi hauek ditu: indibiduala eta sozial/politikoak. Alderdi indibidualak nabarmentzen du premia-eremua dela emakumeek jabe daitezkeen banaka zein taldean duten ahalmenak, giza duintasuna berreskuratzeko; halaber, alderdi sozial eta politikoa azpimarratzen du emakumeek erabakiguneetan izan behar dutela; hau da, boterea erabili behar dutela.

Berdintasunerako Lekeitioko Udalaren I. Plan honek ahaleginak egingo ditu emakumeen partaidetza handi dadin udalean, batik bat emakumeen partaidetza txikiko sailetan — esaterako, udaltzaingoa, obra-brigada eta kiroldegia— eta ordezkari-eremuetan — esaterako, langileen batzordean—.

Halaber, gizonen "jabetasuna" sustatu nahi du etxeko-lanetan eta pertsonen zaintzan, eta, azken horretarako, gizonen pertsonen zaintzarako ardura parteka dezaten bultzatuko du (norberaren bizitza, familia-bizitza eta lana bateratzeko neurriak hartzea proposatuko zaie).

#### **4. EREMUKO helburu orokorra:**

**Emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatzea udalean**



#### **4.1. helburua: Emakumeen eta gizonen kopurua orekatzea, udaltzaingoan, obra eta zerbitzuen sailean eta kiroldegian**

---

**4.1.1. ekintza:** Gaitasun berdina izanda, lehenetasuna ematea emakumeei Lekeitioko Udaleko lan-sarbideko, -horniketako eta -sustapeneko aukeraketa-prozesuetan, baldin eta emakumeak % 40 baino gutxiago badira bete beharreko kidego, eskala, maila edo kategorietan.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Idazkaritza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura eta langile-batzordea

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**4.1.2. ekintza:** kontratazio-aurreko ekintza positiboak egitea, emakume gehiago izan daitezen udaltzaingoan, obra-brigadan eta kiroldegian

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Idazkaritza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura eta langile-batzordea

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**4.1.3. ekintza:** kontratazio-aurreko ekintza positiboak egitea, emakumeek INEM/toki-korporazioetako eta AUZOLAN programetan egindako lanpostu-eskaeren kopurua handitzeko, emakumeen kopurua txikia den lanpostuetan

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapeneko Agentzia eta Gizarte Zerbitzuen Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**4.1.4. ekintza:** kontratazio-epaimahaiak emakumeen eta gizonen kopuru orekatua izatea, araudiak eskatutako titulazio akademikoa eta espezializazioa betez.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Idazkaritza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Emakumeen eta gizonen kopurua udal-sailetan, udal-kategorietan, udal-mailetan eta abarretan...
- Emakumeen eta gizonen kopurua AUZOLAN eta INEM/TOKI-KORPORAZIOAK programetan.
- Emakumeen eta gizonen kopurua kontratazio-epaimahaitan.



## **4.2. helburua: Emakumeen eta gizonen kopuruak orekatzea, lan-arriskuen prebentzioko barne-batzordeetan eta langileen batzordean**

---

**4.2.1. ekintza:** partaidetza-kuotak ezartzea barne-batzordeetan eta langileen batzordean, % 40tik beherako ordezkapenik duen sexurik izan ez dadin.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Barne-sailak eta langileen batzordea

**Egiteko epea:** 2007

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Emakumeen eta gizonen kopurua barne-sailan eta langileen batzordean.

## **4.3. helburua: familia-bizitza eta lana bateratzeko neurriak hartzen dituzten udaleko gizonetako langileen kopurua handitzea.**

---

**4.3.1. ekintza:** sentsibilizazio-kanpaina bat egitea udalean, gizonak emakumeekin parteka dezaten mendeko pertsonak eta pertsona independenteak zaintzeko ardura

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2008

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Familia-bizitza eta lana bateratzeko neurriak hartzen dituzten udaleko gizonetako langileen kopurua.

## **4.4. helburua: udalean lan egiten duten emakumeen (langileak, laguntzaileak, administrariak, teknikariak, buruak, zinegotziak...) jabetasunaren sustatzea**

---

**4.4.1. ekintza:** Lekeitioko Udaleko emakumezko langileez osatutako jabetasun-taldeak osatzea, eta haiek eskatutako alderdiei buruzko jabetasun ematea talde horietan; hala nola, lidergo-trebetasunak, negozio-trebetasunak eta jendaurrean hitz egitekoak

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009



**4.4.2. ekintza:** lidergo-trebetasunak, negoziaziokoak eta abarrekoak genero-ikuspegitik aztertuko dituzten taldeak osatzea Lekeitioko Udalean

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Emakumeentzako jabeakuntza-taldeen kopurua.
- Parte hartzen duten emakumeen kopurua eta haiek udalean betetzen duten lanpostua.
- Genero-ikuspegitik udal-langileentzat egindako trebetasun pertsonaleko eta kudeaketako ikastaro-kopurua.
- Ikastaro horietan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopurua eta horien lanpostuak.

#### 4.5. helburua: sexu-jazarpena prebenitzea udal-lanetan

---

**4.5.1. ekintza:** Emakundek argitaratu duen laneko sexu-jazarpenaren kontrako jokabide-kodera egokitzea eta osatzea Udalhitz hitzarmenean jasotzen diren laneko jazarpenaren eta genero-indarkeriaren aurkako neurriak, eta horiek udal-barruan jakinaraztea.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Langileen batzordea

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2008

#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- UDALHITZ hitzarmeneko neurriak, EMAKUNDEko jokabide-kodera egokituak.
- Haren zabalpena zer-nolakoa izan den.



## 5. eremua: HEZKIDETZA

Hezkuntza da giza izaera garatzeko tresna nagusia, komunitateetako pertsonen sozializatorako bide nagusia baita.

Garrantzitsua da haurrei helarazitako edukiak, balioak, jarrerak eta aurreikuspenak aztertzea, eta betidanik “emakumezkoenak” eta “gizonezkoenak” izan diren esparruak “Hezkidetzaren” ikuspegitik (haurrak eskubide- eta aukera-berdintasunean heztea, sexu-diferentziek mendekotasuna edo bazterketa eragile izan gabe) berrikustea. Hezkidetzak hauxe eskatzen du: betidanik emakumezkoenak edo gizonezkoenak kontsideratu izan diren jarrerak eta balioak sexu bateko zein besteko edozein pertsonak onartu eta bere egin ditzakeela.

Lekeitioko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoak honako ahulezia hauek hauteman ditu:

- Ikastetxeetan hezkidetzak ez dago sistematizaturik.
- Neskek betidanik emakumezkoenak izaten diren taldeetan parte hartzeko joera dute, eta mutilek ere joera bera dute.
- Aitek ez dute behar adina parte hartzen ikastetxeetako eguneroko jardueretan.
- HHE zentroaren jarduerak ez dira behar bezala koordinatzen udalarekin eta Behargintzarekin (Toki-garapeneko agentzia).

Bestalde, gero eta goizago irakasten dira eskolan zenbait balio: tolerantzia, aniztasunari errespetua izatea, ingurumena zaintzea, etab.

Ildo horretatik, erakunde publiko guztiek aholkatzen dute emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta adin orotan lantzea. Hori dela-eta, eremu honetako ekintzek xede hori izango dute.

### 5. EREMUKO helburu orokorra:

**Herriko hezkuntza-esparruetan genero-ikuspegia aintzat har dadin sustatzea**



## **5.1. helburua: Lekeitioko hezkuntza- eta prestakuntza-zentroek hezkidetzak sistematikoki jasotzen dituztenak.**

**5.1.1. ekintza:** "Berdintasunerako Balioen Gela" sortzea Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikasleentzat, haien familientzat eta irakasleentzat, eta gela hori modu sistematikoan ezartzea Lekeitioko heziketa- eta prestakuntza-zentroetan.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Gizarte-zerbitzuak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura, hezkuntza-zentroak, HHE eta Toki Garapenerako Agentzia (Behargintza).

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Berdintasun-balioetan hezteko programa-kopurua eta programa-motak, Lekeitioko hezkuntza-zentroetan modu sistematikoan ezarriak.

## **5.2. helburua: emakumeen aurkako indarkeria txikitik prebenitzea**

**5.2.1. ekintza:** emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko lantegiak egitea, DBHko ikasleentzat

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** hezkuntza-zentroak

**Egiteko epea:** 2007

**5.2.2. ekintza:** hezkuntza-zentroetan genero-indarkeria pairatzen duten neska gazteen salaketak jasotzeko postontziak jartzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** hezkuntza-zentroak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Neskek eta mutikoen emakumeen kontrako indarkeriari buruz dituzten jarrerak.
- Hezkuntza-zentroetan nesken aurka egindako indarkeria-jokabideen kopurua eta indarkeria-motak.





### **5.3. helburua: Aitek hezkuntza-zentroetako gurasoen elkarteetako jardueretan parte har dezaten sustatzea**

---

**5.3.1. ekintza:** aitek gurasoen elkarteetako eta hezkuntza-zentroetako jardueretan parte hartzeko izan ditzaketen oztopoei buruzko azterlan bat egitea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Gurasoen elkarteak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura eta hezkuntza-zentroak

**Egiteko epea:** 2007

**5.3.2. ekintza:** kanpaina bat egitea, aitek gurasoen elkarteetako eta hezkuntza-zentroetako jardueretan parte har dezaten.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Gurasoen elkarteak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura eta hezkuntza-zentroak

**Egiteko epea:** 2008 eta 2009.

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Hezkuntza-zentroek 2006-2007, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan egiten dituzten jardueretan parte hartzen duten aiten kopurua.

### **5.4. helburua: Nesken eta mutilen parte-hartzea prestakuntza-adar guztietan banatzea.**

---

**5.4.1. ekintza:** bokazioei buruzko orientazio-lantegi ez-sexistak egitea, ikasleentzat eta familientzat

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Hezkuntza-zentroak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**5.4.2. ekintza:** DBHko ikasleen bisitak antolatzea, sexuaren araberako lanbide banaketa tradizionala hausten duten enpresetara joateko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Hezkuntza-zentroak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**



- Lekeitioko neskek eta mutilek 2006-2007, 2007-2008 eta 2008-2009 ikasturteetan hautatutako ikasketak.

## **5.5. helburua: HHE zentroko jarduerak udalarekin eta Behargintzarekin duten koordinazioa hobetzea.**

---

**5.5.1. ekintza:** HHE zentroak koordinazio-bilerak egitea Udalarekin eta Behargintzarekin, eta lankidetzaren arloak ezartzea, Lekeitioko emakumeek prestakuntzarako eta enpleguarekiko bizi duten egoera hobetzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Gizarte-zerbitzuak

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura, HHE eta Toki-garapenerako Agentzia

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- HHErekin eta Behargintzarekin batera egindako bilera-kopurua.
- Bilera horietatik eratorritako ekintza-motak.



## 6. eremua: ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA

Lekeitioko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoak, besteak beste, honako hauek adierazten dizkigu:

- Emakumeen langabezia gizona baino nabarmen gehiago igo da (% 29,8 emakumeena eta % 4,6 gizonena).
- Lanpostuen behin-behinekotasuna handiagoa da Lekeitioko emakumeengan gizona baino.
- Gizonek eta emakumeek egindako lanei erreparatuta, sexu-segregazioa dagoela ikusten da.
- Emakumeek zailtasunak dituzte enplegurako prestakuntzari ekiteko.
- Emakumeek eta gizonek ez diote modu berean ekiten sustapenari.

lido horretatik, agerian geratzen da beste behin gizona eta emakumearen arteko diferentziak, lan-merkatuan bizi duten egoerari dagokionez. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Emakunderen IV. Planaren zirraborroak, ezberdintasun hori egiaztatuta, enplegu-zerbitzuak hobetu behar direla adierazten du; harik eta emakumeen lan-baldintzak hobetu arte:

*"Lan-merkatuan enplegua banatzeko modu tradizionalaren jatorria estereotipoak dira, gizartearen eta kulturaren arloko estereotipoak, hain zuzen ere. Hortaz, tradizioan emakumezkoenak izan diren enpleguetara, okupazioetara eta prestakuntzetara bideratzen dira emakumeak orientazioa emateko garaian... bada, enplegu-zerbitzuetan zuzenean eragin beharko dugu".*

*"Hiru eremu hauek ditu ardatz Planak emakumeen presentzia indartzeko: ordezkartza txikiak duten sektoreak, sartzeko zailtasunak dituzten industria sektoreak eta emakumeek berek bultzaturiko enpresa-ekimenak" Berdintasunerako EMAKUNDEren IV. Planaren II. zirraborroa.*

Alderdi horiei guztiei erreparatuta, Planak berriazko helburu hauek ezarri ditu eremu honetan:

- Emakumeen langabezia-tasa jaistea, batik bat, 25 eta 35 urte bitarteko eta 44 urtetik gorako emakumeena.
- Lekeitioko emakumeen lan-baldintzen hobekuntza bultzatzea.
- Herriko emakumeak turismo-sektorean enplegurako edo autoenplegurako estrategiak jarrai ditzaten sustatzea.
- Lekeitioko enpresaburuekin harremanetan jartzea, lanpostuen sexu-dibertsifikatzearekiko sentikor izan daitezen.

### 6. EREMUKO helburu orokorra:

**Lekeitioko emakumeek enplegurako eta prestakuntzarako duten sarbidea orekatzea**



## **6.1. helburua: Emakumeen langabezia-tasa jaitea, batik bat, 25 eta 35 urte bitarteko eta 44 urtetik gorako emakumeena**

**6.1.1. ekintza:** eskualdeko emakumeen enplegu-aukera errealei buruzko aztelan bat egitea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapeneko Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

**Ebaluazio-adierazleak:**

**6.1.2. ekintza:** eztabaida taldeak egitea, 25 eta 35 urte bitarteko emakumeek eta 44 urtetik gorako emakumeek osatuak, emakume horiek lan egiteko dituzten oztopo pertsonalak eta profesionalak zein diren jakiteko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapeneko Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

**Ebaluazio-adierazleak:**

**6.1.3. ekintza:** enpresaburuei zuzendutako kanpaina bat egitea, oro har emakumeak kontratatzeke eta betidanik gizonak bete izan dituzten postuetarako emakumeak kontratatzeke

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapeneko Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura eta enpresak

**Egiteko epea:** 2008

**Ebaluazio-adierazleak:**

**6.1.4. ekintza:** 25 eta 35 urte bitarteko eta 44 urtetik gorako emakumeentzako lantegiak prestatzea, eta, horien bidez, enpleguaren garrantzia eta bikotekidearekin negoziatzea sustatzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapeneko Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura, enpresak eta INEM

**Egiteko epea:** 2008 eta 2009

**Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- 25 eta 35 urte bitarteko eta 44 urtetik gorako emakumeen eta gizonen langabezia-tasa, 2007an, 2008an eta 2009an.



- Lekeition emakumeei eta gizonei egindako kontratuen lanbide-sektoreak eta kontratu-motak, 2007an, 2008an eta 2009an.



## 6.2. helburua: Lekeitioko emakumeen lan-baldintzen hobekuntza bultzatzea

---

**6.2.1. ekintza:** Lekeitioko emakumeen lan-baldintzei buruzko azterlan bat egitea, eta horiek hobetzeko ekintzak planteatzea, bai soldatapeko lanetako baldintzei dagokienez, bai soldatarik gabeko eta etxeko lanetako baldintzei dagokienez

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Toki Garapenerako Agentzia, sindikatuak eta enpresak

**Egiteko epea:** 2007

**6.2.2. ekintza:** Lekeitioko emakumeen lan-baldintzei buruzko azterlanean planteatutako hobekuntza-ekintzak egitea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapenerako Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura, sindikatuak eta enpresak

**Egiteko epea:** 2008 eta 2009

**6.2.3. ekintza:** DFBko Lan Azpiegiturako laguntzak eska daitezten sustatzea eta babestea, emakumeek enplegua lor dezaten errazteko (aldagelak, komunak, telelana...)

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapenerako Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura, sindikatuak eta enpresak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**6.2.4. ekintza:** emakume lekeitiarren lan-poltsa bat kudeatzea eta zabaltzea, bigarren sektoreko enpresetako zuzendaritza-postuetarako eta lanpostu teknikoetarako izangaiez osatua

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapenerako Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura eta enpresak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**6.2.5. ekintza:** emakumeentzako etengabeko prestakuntza antolatzea edo bultzatzea, haien lan-arloko egoera hobetzeko (esaterako, lidergoa, jendaurrean hitz egitea edo negoziazioa)

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapenerako Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura, sindikatuak eta enpresak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009



**6.2.6. ekintza:** prebentzio-eta jardunbide-protokoloak ezartzea sustatzea, sektore pribatuko enpresetan gertatzen diren sexu-jazarpeneko kasuei aurre egiteko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapenerako Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura, sindikatuak eta enpresak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Lekeitio emakumeen enplegu-egoera hobetzeko egindako eta ezarritako hobekuntza-kopurua.
- Lekeitio emakumei eta gizonei egindako kontratuen lanbide-sektoreak eta kontratu-motak, 2007an, 2008an eta 2009an.
- Lekeitio enpresetan jarri diren azpiegitura kopurua, herriko emakumeek enplegua lor dezaten errazteko
- Egindako poltsatik zuzendaritza-postuetarako eta lanpostu teknikoetarako kontratatutako emakumeen kopurua.

**6.3 helburua:** Herriko emakumeak turismo-sektorean enplegurako edo autoenplegurako estrategiak jarrai ditzaten sustatzea.

**6.3.1. ekintza:** turismoarekin lotutako lanbide-prestakuntzako programak egitea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapenerako Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**6.3.2. ekintza:** Lekeitio turismo-sektoreko negozioak sortzeko ideia-haztegi bat sortzea.

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapenerako Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

**6.3.3. ekintza:** Lekeitio emakumeek sustapenerako dituzten oztopoak sakon aztertzea, eta oztopo horiek ezabatzeko ekintzak planteatzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapenerako Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007



#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Emakumeek turismo-sektorean sortutako enpresa-kopurua.

### **6.4 helburua: Lekeitioko enpresaburuekin harremanetan jartzea, lanpostuen sexu-dibertsifikatzearekiko sentikor izan daitezen**

**6.4.1. ekintza:** Lekeitioko Udalak sari edo antzeko bat sortzea, betidanik gizonezkoek betetako lanbideetan emakumeak kontratatu dituzten enpresak saritzeko edo aitortzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura eta Toki-garapeneko Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** enpresak

**Egiteko epea:** 2008, 2009

#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Betidanik gizonezkoenak izan diren lanpostuak betetzen dituzten Lekeitioko emakumeak, 2009an.

### **6.5. helburua: Neurriak hartzea emakumeak lanbide-heziketako ikasketak egin ditzaten**

**6.5.1. ekintza:** laguntza-deialdi bat sortzea, familia-bizitza eta lana bateratzeko. Laguntza horiek baliagarriak izan behar zaizkie mendeko pertsonak edo/eta pertsona independenteak zaintzen dituzten gizon eta emakumeei, lanbide-prestakuntzako eta enpleguarekin lotutako bestelako ekintzak egiteko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Toki Garapeneko Agentzia

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Herriko pertsonentzat antolatutako lanbide-prestakuntzako jardueretan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopurua.
- Lanbide-prestakuntzako ekintzak eta enpleguarekin lotutako bestelako ekintzak egitea errazteko emandako laguntza-kopurua.





## 7. eremua: KULTURA, KIROLA ETA GIZARTE-PARTAIDETZA

Lehenik eta behin, adierazi behar da Lekeition ez dagoela, berariaz, emakume-elkarerik; nahiz eta badiren zenbait emakume-talde, haien intereseko jarduerak antolatzeko biltzen direnak. Ildo horretatik, behar-beharrezkoa da talde horiek indartzen eta haien funtzionamendua arautzen saiatzea. Lehen adierazitakoari jarraiki, emakumeen jabeakuntza-estrategia ez da inplementatu behar soilik Udalean lan egiten duten emakumeengan; aitzitik, herriko emakume guztiengan inplementatu behar da. Horrela, sustatu egin behar da emakumeak jabe daitezen pertsonak eta herritarrak diren aldetik duten botereaz, eta udal-politikak erabakitzen eta horien plangintza egiten parte har dezaten.

Emakumeek kirolean duten partaidetza da eremu honetako beste alderdi garrantzitsu bat. Hauxe dio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren zirriborroaren atal batek: *"Kirola praktika-multzotzat hartu izan da, ludikoak eta arautuak izanik, bitartekotzaren, borrokaren, lehiaren, nagusitasunaren eta botere-erakustaldiaren balio maskulinoak transmititzeko praktika multzotzat, alegia, historian zehar emakumeek kirol-praktika bizitzeko izan dituzten eta dituzten moduei eta balioei arreta eta balioespen txikiagoa emanda, eta horiek ikusezin bihurtuta. Hasierako egoera horren zenbait ondoriok gaur egun ere badiraute, eta maila guztietan, kirolarekin ongi pasatzeko gizoneen eta emakumeen arteko aldeetan atzematen dira. Estatistiken arabera, emakumeen parte-hartzea gero eta handiagoa da kirolaren eremuan, baina genero aldeak hor dirau".*

Lekeition, emakume gutxik egiten dute kirola, eta emakume gutxi daude kirol-klubetako zuzendaritza-postuetan.

Kultura-arloei dagokienez, emakumeek partaidetza txikia dute horietan, batik bat, herriko musika-taldeetan.

Horrenbestez, berariazko helburu hauek ezarri dira eremu honetan:

- Lekeitioko emakumeen jabeakuntza indartzea eta emakume-elkarteak sor daitezen bultzatzea.
- Kirol- eta musika-arloan emakume gutxik parte hartzen dutela ikusita, parte-hartze txiki horren arazoak eta emakumeek dituzten oztopoak zein diren jakitea.
- Emakumeen eta gizonen partaidetza anitzagoa izatea herriko kirol-jardueretan.
- Genero-ikuspegia txertatzea herriko elkarten egituran eta jardueretan.



Halaber, zeharkako gaitzat lantzen da eremu honetan emakumeen aurkako indarkeriaren ardatza, eta zenbait helburu ezarri dira herritarren kultura-balioak eta indarkeria horren aurkako jarrerak uztartzeko. Hala adierazten du eremuko azken helburuak:

- Emakumeek eta gizek begi onez ikustea pertsona indibidualek eta gizarte osoak emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko egindako inplikazio-jarduerak.

**7. EREMUKO helburu orokorra:**  
**Lekeitioko emakume guztiek gizartean, kulturean eta kirolean parte har dezaten sustatzea**



## **7.1 helburua: Lekeitio emakumeen jabekuntza indartzea eta emakume-elkarteak sor daitezen bultzatzea**

**7.1.1. ekintza:** emakumeen elkarte-jarduerei buruzko jardunaldi bat antolatzea herriko emakume guztientzat, eta beste herri batzuetako emakume-elkarteak gonbidatzea jardunaldi horretara

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gizarte-zerbitzuetako agentzia

**Egiteko epea:** 2007

**7.1.2. ekintza:** emakume-elkarteak egiteko dirulaguntzak sortzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza eta Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gizarte-zerbitzuetako agentzia

**Egiteko epea:** 2007

**7.1.3. ekintza:** elkarteetako emakumeentzako ikastaroak antolatzea, hainbat gairi buruzkoak; esaterako, elkarten kudeaketa buruzkoak, lidergoari buruzkoak, jendaurrean nola hitz egin behar den azaltzekoak, eta abarrekoak

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gizarte-zerbitzuetako agentzia

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**7.1.4. ekintza:** jabekuntza-eskola bat sortzea, Lekeitio emakumeentzat

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gizarte-zerbitzuetako agentzia

**Egiteko epea:** 2007

**7.1.5. ekintza:** urteroko kontzientziatze- eta sentsibilizatze-kanpainak antolatzea; batik bat, Maiatzaren 8ko ospakizunean, Emakumeen nazioarteko egunean eta azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeriaren nazioarteko egunean

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gizarte-zerbitzuetako agentzia

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009



#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Emakume-elkarteen kopurua eta elkarte-motak, 2009an.
- Udal-erabakiak hartzeko emakume-taldeek edo -elkarrekin parte har dezaten egindako ekintza-kopurua.
- Jabekuntza-eskolan eta elkarteak sortzeko ikastaroan parte hartu duten emakumeen kopurua.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egindako kanpaina-kopurua.

### **7.2. helburua: kirol- eta musika-arloan emakume gutxiak parte hartzen dutela ikusita, parte-hartze txiki horren arrazoiak eta emakumeek dituzten oztopoak zein diren jakitea**

**7.2.1. ekintza:** emakumeek Lekeitioko kirol- eta musika-jardueretan duten partaidetza txikiaren atzean dauden oztopoak aztertzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Kirol Saila eta Kultura Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

**7.2.2. ekintza:** Kirol Sailean plan estrategiko bat egitea, genero-ikuspegia jasoko duena

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Kirol Saila eta Kultura Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2008

#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Herriko kirol-jardueretan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopurua, 2007an, 2008an eta 2009an.
- Emakumeen eta gizonen kopurua Lekeitioko musika-taldeetan.

### **7.3. helburua: Emakumeen eta gizonen partaidetza anitzagoa izatea herriko kirol-jardueretan**

**7.3.1. ekintza:** Generoko eta Kiroleko Sail bat sortzea, haurrak, gazteak eta gizon eta emakumeak kirola berdintasunez egiteko ekintzak planifika ditzan

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Kirol Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura



**Egiteko epea:** 2008

**7.3.2. ekintza:** kirol anitzeko jardunaldi bat egitea urtero, kirola berdintasunez egiteko aukera emango duena

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Kirol Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**7.3.3. ekintza:** herriko ikastetxeetara EAEko emakume kirolari ospetsuak eramatea, gazteen artean kirola sustatzeko eta kirola egiteari gazterik utz ez diezaioten

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Kirol Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

**Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Kirol-jardueren motak eta horietan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopurua, 2007an, 2008an eta 2009an.

## **7.4 helburua: Genero-ikuspegia txertatzea herriko elkarten egituran eta jardueretan**

**7.4.1. ekintza:** urtero elkarteei eta klubei prestakuntza emateko mintegiak antolatzea, haien egituran eta jardueretan genero-ikuspegia nola sar dezaketen ikasteko eta gai horri buruzko tresnak eskuratzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Kirol Saila eta Kultura Saila

**Egiteko epea:** 2007

**Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Lekeitioko kirol-elkarte eta -klubetako programa-kopurua, genero-ikuspegia jasotzen dutenak.

## **7.5. helburua: Emakumeek eta gizonen begi onez ikustea pertsona indibidualek eta gizarte osoak emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko egindako inplikazio-jarduerak**

**7.5.1. ekintza:** emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako kultura babestuko eta sustatuko duten gizon-taldeak sortzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura



**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak, herriko elkarteak eta klubak, ikastetxeak eta sindikatuak

**Egiteko epea:** 2007

**7.5.2. ekintza:** urtero kanpaina bat egitea jarrera positiboak bultzatu eta gizonak emakumeen aurka erabilitako indarkeriaren aurka egingo duena

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak, herriko elkarteak eta klubak, ikastetxeak eta sindikatuak

**Egiteko epea:** 2008

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra sortutako gizon-taldearen kopurua.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra sortutako gizon-taldeetan dauden gizonen kopurua.
- Lekeitioko gizonak emakumeen aurkako indarkeriarekiko izan duten jarrera, 2007an eta 2009an.



## 8. eremua: GIZARTE INKLUSIOA

"Gizarte-bazterketatzat joko dugu herritar guztien gizarte-eskubideak (enplegurako, hezkuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako, osasunerako, gizarte-babeserako eta abarrerako eskubideak) bermatzeko gizartearen ezintasuna; bereziki emakumeek pairatzen dute gizarte-bazterketa hori". EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planeko Zirriborroa. Ildo horretatik, eta EAEko IV. Plan horrek adierazten duen moduan, emakumeek gizonezkoaren figuraren bidez eskuratzen dituzte gizarte-eskubideak, zailtasunak baitituzte soldatepeko lanak lortzeko eta arlo publikoan egindako lanek balioespen eskusiboa baitute; ondorioz, emakumeak mendekotasun sozioekonomikoa bizi dute, eta horrek "pobreziaren feminizazioa" eragiten du.

Bestalde, hauxe dio Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Legeak: "Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobreziak eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarrizko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboetarako zuzendutako programa zehatzak diseinatuko dituzte". V. kapitulua, 45. artikulua.

Horri dagokionez, Lekeitioko Udaleko zenbait Sailek bazterketa-arriskuan dauden pertsona horiekin lan egiten dute, eta eremu honen xedea da genero-ikuspegia aintzat hartzea plangintza- eta interbentzio-prozesuetan. Lehenik eta behin, herriko emakumeen egoerari buruzko azterlan bat egin behar da, bai diskriminazio anitza pairatzen dutenena, bai bazterketa-arriskuan daudenena.

### 8. EREMUKO helburu orokorra:

**Diskriminazio anitza pairatu eta/edo arrisku-egoeran dauden herriko emakumeen baldintzak eta egoerak hobetzeko estrategia bat ezartzea**



## 8.1. helburua: genero-ikuspegia jasotzea udaleko gizarte-zerbitzuetan

**8.1.1. ekintza:** emakume-talde hauen baldintzen eta egoerei buruzko azterlan bat egitea: pobrezia egoeran dauden emakumeena, prostituzioan aritzen direnena, drogamenpekotasun-arazoak dituztenena, espetxeetan daudenena, immigranteena, ezintasunak dituztenena eta bazterketa-arrisku handia dutenena

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Gizarte Zerbitzuen Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2007

**8.1.2. ekintza:** Gizarte Zerbitzuen Saileko plangintzetan, interbentzioetan eta zerbitzuetan genero-ikuspegia jasotzerako orduan izan daitezkeen gabeziak hautemateko jarduerak egitea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Gizarte Zerbitzuen Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Gizarte Inklusioa lantzen duten udal-sailek zer-nolako ezagutza maila duten bazterketa-arriskuan egon edo/eta diskriminazio anitza pairatzen duten emakumeei buruz.
- Bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak aztertu ondoren, proposatutako hobekuntza-kopurua eta -motak.
- Gizarte Ongizate Sailaren plangintzetan hautemandako gabezia-kopurua eta -motak.
- Gizarte Ongizate Sailak egindako interbentziotan hautemandako gabezia-kopurua eta -motak.
- Gizarte Ongizateko Sailak emandako zerbitzuetan hautemandako gabezia-kopurua eta -motak.
- Gizarte Ongizate Saileko plangintzetan, interbentzioetan eta zerbitzuetan egindako hobekuntza-kopurua, horietan genero-ikuspegia jasotzeko.





## 9. eremua: OSASUNA ETA BIZI-KALITATEA

Ikuspegi oso batetik begiratu behar zaio osasunari, eta, ondorioz, ezin dezakegu esan gaixotasunik ez izatea osasuntsu egotea denik. Beraz, osasun- eta gaixotasun-ereduei erreparatzeaz gain, aintzat hartu behar ditugu bizitzako beste alderdi batzuk; esaterako, jateko ohiturak, lan-baldintzak, etxebizitza, aisialdia eta bizitza-estiloa. Ildo horretatik, garrantzitsua da emakumeek, beren premia, lan, erritmo eta "familia-zama" bereziei erreparatua, haien "ondoezen" arrazoiak eta ondorioak zein diren jakitea, eta osasunarekin lotutako gaiei buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzea, genero-ikuspegitik. Halaber, beharrezkoa da emakumeak izatea haien bizitzaren protagonistak.

Berdintasunerako I. Udal Plan honetako eremu honen helburua da aurrez egindako diagnostikoan hautemandako gabeziak estaltzea. Hau da, alde batetik, herritarren osasun-egoerari buruzko datuen berri izatea, sexuaren arabera banatuta eta genero-ikuspegitik. Bestalde, hobetu egin nahi da nerabeei sexuari eta familia-plangintzari buruz ematen zaien informazioa. Eta, azkenik, gizonen ardurak bere gain har ditzaten bultzatu nahi du, emakume ugariaren kargak arintzeko baliagarri izan baitaiteke.

Beste helburu bat indarkeriaren biktima izan diren emakumeei emandako arreta hobetzea da, jakinda helburu hori zeharkako ardatza dela Plan honetako eremu askotan.

**9. EREMUKO helburu orokorra:**  
**Genero-ikuspegia jasotzea Lekeitioko emakumeen eta gizonen osasunaren eta bizi-kalitatearen hobekuntza-jardueretan**



## **9.1. helburua: Herriko gizonak etxeko lanak egiteko eta mendeko pertsonak zein independenteak zaintzeko ardura parteka dezaten sustatzea**

---

**9.1.1. ekintza:** urtero kanpaina bat egitea, herriko gizonak etxeko lanak egiteko eta mendeko pertsonak zein independenteak zaintzeko ardura parteka dezaten sustatzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gizarte Zerbitzuen Saila, Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren kontrako gizon-taldea

**Egiteko epea:** 2008 eta 2009

**9.1.2. ekintza:** elkarreentzako dirulaguntzen banaketan, lehentasuna ematea adin orotan arduren banaketa sustatzeko ekintzak egiten dituzten elkarteei

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Udal-sail guztiak

**Egiteko epea:** 2008 eta 2009

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Lekeitioko emakumeek eta gizonak zertan eman duten denbora, 2007an, 2008an eta 2009an.

## **9.2. helburua: gazteek sexuari eta familia-plangintzari buruz dituzten informazio-gabeziak betetzea**

---

**9.2.1. ekintza:** neska eta mutil gazteei sexuari eta familia-plangintzari buruzko informazioa emateko udal-zerbitzu bat sortzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Osasun-zentroa

**Egiteko epea:** 2008 eta 2009

### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Lekeitioko gazteek izandako nahigabeko haurdunaldien kopurua.
- Gazteek sexuari buruz duten informazio-maila.
- Lekeitioko neska gazteentzako ginekologia-zerbitzu bat izatea.

## **9.3 helburua: Lekeitioko emakumeen eta gizonen osasunaren eta bizi-kalitatearen egoera zein den jakitea, genero-ikuspegitik**

---



**9.3.1. ekintza:** Lekeitioko emakumeen eta gizonen osasunari eta bizi kalitateari buruzko azterlan bat egitea, genero-ikuspegitik eta hobekuntza-proposamenak ezarriz

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Osasun-zentroa

**Egiteko epea:** 2007

**9.3.2. ekintza:** Osasun eta Generoko Sail bat sortzea, Lekeitioko emakumeen eta gizonen osasunari eta bizi kalitateari buruzko azterlaneko hobekuntza proposamenak aurrera eramateko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Osasun-zentroa

**Egiteko epea:** 2007

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Osasunari eta bizi-kalitateari buruz genero-ikuspegitik egindako azterlana.
- Azterlanaren ondorioz sortutako hobekuntza-proposamen bideragarriak.
- Abian jarritako hobekuntza-proposamenen kopurua.

#### **9.4. helburua: arreta afektiboa ematea tratu txarrak jasan dituzten emakumeei**

**9.4.1. ekintza:** toki-administrazioa egokitzea Etxean tratu txarrak jaso dituzten eta sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeei emandako arreta hobetzeko erakunde arteko Akordioa

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gaian eskudunak diren udal-sailak eta toki-erakundeak

**Egiteko epea:** 2007

**9.4.2. ekintza:** tratu txarren biktimei arreta emateko udal-protokoloaz arduratu behar duten teknikariei genero-indarkeriari buruzko prestakuntza ematea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gaian eskudunak diren udal-sailak eta toki-erakundeak

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

#### **Lehen ebaluazio-adierazleak:**

- Udal-protokolo bat izatea, etxean tratu txarrak jaso dituzten emakumei eta sexu erasoak jasan dituzten emakumei emandako arreta hobetzeko.



- Indarkeriaren biktimei arreta emateko udal-protokoloaz arduratzen diren teknikariek egindako ikastaro-kopurua.



## 10. eremua: HIRIGINTZA

Euskal erakundeetako berdintasun-planek eta Berdintasunerako Legeak funtsezko eremutzak jotzen dute hirigintza, emakumeek eguneroko bizitzan bizi dituzten egoera ugari hobetzeko. Ildo horretatik, *"Euskal herri-aginteez beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere"*. Berdintasunerako EAEko Legea. V. kapitulua. 46. artikulua.

Lekeitioko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko azterlana egin ondoren, hauxe hauteman da: hirigintza-azterketek sexu bakoitzaren premiei erreparatuta egin behar dira, genero-ikuspegitik. Halaber, hobetu egin behar da herrirako irisgarritasuna eta emakumeek parte-hartze handiagoa izan behar dute herriaren hiri-plangintza zehazteko jardueretan.

Hori dela-eta, I. Plan honetako izan eta Hirigintzako udal-sailak egin beharreko ekintzen xede nagusia da emakumeak eta gizonak hirigintza-plangintzako eta -hobekuntzako jardueretan parte har dezaten bultzatzea, herriko emakumeek egiten duten ekarpena bistaraztea eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten aukerak handitzea.

**10. EREMUKO helburu orokorra:**  
**Genero-ikuspegia aintzat hartzea hirigintza-plangintzako eta -hobekuntzako jardueretan**



## **10.1. helburua: ahalegin bat egitea adin orotako emakumeek eta gizonek modu orekatuan parte har dezaten irisgarritasuna, segurtasuna, mugikortasuna eta hirigintza-plangintza hobetzeko jardueretan**

---

**10.1.1. ekintza:** lekeitiarrek irisgarritasunarekiko, segurtasunarekiko eta mugikortasunarekiko dituzten azterlan parte-hartzaile bat egitea, sexuaren eta adinaren arabera zehaztua eta hobekuntza-proposamenak egingo dituen

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Hirigintza Saila eta Obren eta Zerbitzuen Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

**10.1.2. ekintza:** mekanismoak eta baliabide ekonomikoak eta pertsonalak jartzea emakumeek hirigintza-erloto partaidetza-prozesuetan parte har dezaten sustatzeko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Hirigintza Saila eta Obren eta Zerbitzuen Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

**10.1.3. ekintza:** Hirigintza Saileko eta Obra eta Zerbitzuen Saileko azterlanetan genero-ikuspegia aintzat hartzea, eta lan hori diagnostikoak genero-ikuspegitik egiteko tresna estandar bat prestatuz eta aplikatuz egitea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Hirigintza Saila eta Obren eta Zerbitzuen Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007

**10.1.4. ekintza:** "hiri debekatuko" mapa bat egitea, Lekeitioko emakumeentzat segurtasun txikikoak eta iristeko zailak diren lekuak zein diren eta non dauden jakiteko

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Hirigintza Saila eta Obren eta Zerbitzuen Saila

**Egiteko epea:** 2007

**10.1.5. ekintza:** hirigintza-erabakiak hartzeko eta hirigintza-plangintzak egiteko lantalde guztiek genero-berdintasuna aintzat hartuko dutela bermatuko duten mekanismoak ezartzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Alkatetza

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Hirigintza Saila, Obren eta Zerbitzuen Saila eta Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2008



#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Genero-ikuspegia aintzat hartu duten hirigintza-azterketen kopurua.
- Emakumeek hirigintza-plangintzako eta -hobekuntzako jardueretan parte har dezaten ezarritako mekanismoen kopurua eta motak.
- Hirigintza-plangintzako prozesuetan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopurua.
- Hirigintza-plangintzako lantaldeetan dauden emakumeen eta gizonen kopurua.
- Emakumeen beharrei erreparatuta, herria seguruagoa eta irisgarriagoa izan dadin egin behar diren hobekuntzen kopurua.

### **10.2. helburua: emakumeek historian egindako ekarpenak bistaraztea Lekeitioko kaleetan, plazetan, parkeetan eta abarretan**

**10.2.1. ekintza:** herriko bizitza sozialean, ekonomikoan eta politikoan garrantzitsuak izan diren emakumeei buruzko ikerlan historikoa egitea eta argitaratzea

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Berdintasunerako Egitura

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Kultura Saila

**Egiteko epea:** 2008

**10.2.2. ekintza:** Lekeitioko edo EAeko emakume ospetsuen izenak jartzea herriko kale, plaza, parke, gizarte-zentro eta bestelako espazio publikoei

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Hirigintza Saila eta Obren eta Zerbitzuen Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Kultura Saila eta Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2008 eta 2009

#### Lehen ebaluazio-adierazleak:

- Historian leku handia izan duten emakumeen izenak daramatzaten kaleen, plazen, eraikinen eta abarren kopurua, 2009an.

### **10.3. helburua: etxebizitza bat eskuratzeko laguntza ematea egoera zailak bizi dituzten emakumei (indarkeriaren biktimei, oinarrizko errenta jasotzen dutenei, familien buru bakarrak direnei eta abarrei)**

**10.3.1. ekintza:** udalak egoera zailak bizi dituzten emakumeak aintzat hartzea alokairuko etxebizitzaren eskaintzetan

**Egiteko ardura izango duen saila edo erakundea:** Hirigintza Saila eta Obren eta Zerbitzuen Saila

**Sail edo erakunde laguntzaileak:** Gizarte Zerbitzuen Saila eta Berdintasunerako Egitura

**Egiteko epea:** 2007, 2008 eta 2009

#### Lehen ebaluazio-adierazleak:



- Udalak egoera zailak bizi dituzten emakumezko herritarrentzat gordetzen dituen alokairuko etxebizitzaren kopurua.
- Egoera horietan egonda, etxebizitza bat lortu duten emakumeen kopurua.





## 6.

### Kronograma

Jarraian, Plan honetako ekintza betetzeko aurreikusi den egutegia adierazten da:

EREMUAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK			2006	2007		2008		2009		
Eremua	Helburuak	Ekintza	2. seihilekoa	1. seihilekoa	2. seihilekoa	1. seihilekoa	2. seihilekoa	1. seihilekoa	2. seihilekoa	
1	1.1.	1.1.1.								
		1.1.2.								
		1.1.3.								
		1.1.4.								
		1.1.5.								
		1.1.6.								
		1.1.7.								
	1.2.	1.2.1.								
		1.2.2.								
		1.2.3.								
1.3.	1.3.1									
2	2.1.	2.1.1								
		2.1.2.								
		2.1.3.								
		2.1.4.								
	2.2.	2.2.1.								
		2.2.2								
	2.3.	2.3.1								
		2.3.2								
		2.3.3								
	2.4.	2.4.1								
3	3.1.	3.1.1.								
		3.1.2.								
		3.1.3.								
	3.2.	3.2.1.								
		3.2.2.								
		3.2.3.								
	3.3	3.3.1.								
		3.3.2.								
4	4.1.	4.1.1								
		4.1.2								
		4.1.3.								
		4.1.4.								
	4.2.	4.2.1								
		4.2.2								
	4.3	4.3.1.								



	4.4.	4.4.1.							
		4.4.2.							
4.5.	4.5.1.								
5	5.1.	5.1.1.							
	5.2.	5.2.1.							
		5.2.2.							
	5.3.	5.3.1.							
		5.3.2.							
	5.4.	5.4.1.							
		5.4.2.							
5.5.	5.5.1.								
6	6.1.	6.1.1.							
		6.1.2.							
		6.1.3.							
		6.1.4.							
	6.2.	6.2.1.							
		6.2.2.							
		6.2.3.							
		6.2.4.							
		6.2.5.							
		6.2.6.							
	6.3.	6.3.1.							
		6.3.2.							
		6.3.3.							
	6.4.	6.4.1.							
	6.5.	6.5.1.							
7	7.1.	7.1.1.							
		7.1.2.							
		7.1.3.							
		7.1.4.							
		7.1.5.							
	7.2.	7.2.1.							
		7.2.2.							
	7.3.	7.3.1.							
		7.3.2.							
		7.3.3.							
	7.4.	7.4.1.							
7.5.	7.5.1.								



EREMUAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK			2006	2007		2008		2009	
Eremua	Helburuak	Ekintza	2. seihilekoa	1. seihilekoa	2. seihilekoa	1. seihilekoa	2. seihilekoa	1. seihilekoa	2. seihilekoa
8	8.1.	8.1.1.							
		8.1.2.							
9	9.1.	9.1.1.							
		9.1.2.							
	9.3.	9.3.1.							
	9.4.	9.4.1.							
		9.4.2.							
	10	10.1	10.1.1						
10.1.2									
10.1.4.									
10.1.5.									
10.2.		10.2.1.							
		10.2.2.							
10.3.		10.3.1							